

## **AZOKATXOAN KALEZ KALEKO SALMENTARAKO BAIMENAK**

### **ESLEIPEN ZUZENEZKO PROZEDURA**

#### **Xedea.**

Bermeoko udalerrian, Azokatxoan kalez kaleko salmentarako baimenak zuzeneko prozedura bidez ematea da deialdi honen xedea.

#### **Azokatxoko ezaugarriak**

- Izena: "AZOKATXOA".
- Kokapena: Bermeoko Alde Zaharra (Arana Goiri tar Sabinen enparantza eta Ertzilla kalea). (1. eranskina).
- Aldizkakotasuna: Asterokoa asteartean, jaiak edota Bermeoko Udalak finkatutako egun bereziak izan ezik. Horrela izanez gero, ez litzateke azokatxorik egongo.
- Salmenta ordutegia: 9:00 – 14:00

#### **Eskariak aurkezteko baldintza orokorrak.**

- 1.- Jarduera Ekonomikoei buruzko zergari dagozkion epigrafeetan alta emanda egotea eta guztia ordainduta edukitzea.
- 2.- Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea eta kuota ordainduta izatea. Pertsona juridikoen kasuan, enpresa legeaz Gizarte Segurantzaren inskribatuta egotea, bere langileak afiliatuta egotea eta ordainketa guztiak ordainduta edukitzea.
- 3.- Saltzen diren produktuei edo instalakuntzei buruz araudi espezifikoek ezarritako osasun eta higiene baldintzak betetzea.
- 4.- Atzeritarren kasuan, Egoitza eta Lan baimen egokiak lortu izanaren dokumentazio egiaztagarria edota egoteko eta lan egiteko gai egiten duten beste edozein agiri.
- 5.- Bermeoko Udalari, legeazko errekurtsuaren zain ez dagoen ezertariko zorrik ez edukitzea.
- 6.- Salmenta jardueran aritzen diren bitartean aurkezten diren erreklamazioak jaso ahal izateko, ohiko helbidea eduki.
- 7.- Elikagaien eta belar eta dietetikaren produktuen kalez kaleko salmenta salmentaren kasuan honelako produktuak saltzen duten saltoki guztiek indarrean dagoen osasun legeriak zehazten dituen osasun-higiene baldintzak eta merkatal produktu espezifikoetako araudiek jarritakoak bete beharko dituzte. Bereziki, beharrezkoa izango da dagokion osasun eskumena duen organoaren baietzeko txostena edukitzea.



## **Eskabideak.**

1.- Eskabideak honako lekuan, ordutegian eta epean aurkeztuko dira alkate-udalburuari zuzenduta:

**LEKUA:** Administrazio honetako ERREGISTRO OROKORRA (BerHAZ - Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua, Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO).

**ORDUAK:** Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenetan eta eguenetan 16:30 – 19:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00. \*Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

**EPEA:** Hamabost (15) egunetan deialdi honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.- Interesatuaren eskarian honako hau agertu beharko da (IV. eranskina):

- a. Eskatzailearen izen-abizenak eta egoitza soziala, bere kasuan.
- b. Pertsona juridikoen kasuan, NAN, EIZ eta IFKaren zenbakiak.
- c. Ohiko helbidea.
- d. Instalakuntza eta salgaien deskripzioa.
- e. Pertsona juridikoen kasuan, honen kontura baimena erabiliko den langilea edo bazkidearen izena, helbidea eta NANA ere jarri beharko da agerian.
- f. Saltokiaren neurria

3.- Hala ere, eskaria aurkezterakoan interesatuek erantzukizunaren aitortpen bat baino ez dute sinatu beharko, eta bertan, gutxienez, honakoak adieraziko dituzte:

- a) Ezarritako baldintzak betetzen dituztela.
- b) Jardueraren hasieratik bertatik hori egiaztatzen duen agiriak dituztela.
- c) Baimena indarrean dagoen bitartean beteko dituztela.

4.- Erantzukizunaren aitortpenaren edukiak, horrez gain, beste hauek ere jasoko ditu:

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafean alta emanda dagoela eta tarifaren ordainketan egunean dagoela edo, salbuetsita egonez gero, zergapekoen erroldan izena emanda daukala.
- b) Indarrean dauden xedapenek ezarritako Zerga betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ordainduta dituela.
- c) Hirugarren herrialdeetatik datozenek, egoitza-baimenari eta lanerako baimenari dagokienez, indarrean dagoen legedian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.



- d) Kalean saltzen den edo saltoki finkoetan saltzen ez den produktuaren edo produktuen araudiak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela.

5.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan altan emanda egotea eta ordainketak egunean izatea edo, hala badagokio, zergapekoen erroldan egotea egiaztatzeko bi bide izango ditu aukeran interesatuak: berak egiaztatuta edo, bestela, Administrazioari egiaztapen hori egiteko baimena emanda.

6.- Aurreko atala gorabehera, erantzukizunaren aitortzean zehaztutako beste betebeharrak ez dira dokumentu bidez egiaztatu beharko, administrazio publikoek egiaztapenerako dituzten ahalmenen kalterik gabe.

Administrazio publikoek egiaztapenerako daukan ahalmena, edozein momentuan, baimena indarrean dagoen bitartean, gauza dezakete, eta interesdunak ezarritako baldintza guztiak betetzen ez dituela egiaztatuko balu, Kalez Kaleko salmenta Bermeon arautzen duen Ordenantzaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, baimena iraungi egin dezake, beti ere, interesdunak aurretiaz entzun ondoren.

### **Adjudikazio irizpideak.**

Azaroaren 23ko 17/2009 Legearen II. kapituluan ezarritakoaren arabera, eta, beti ere, lehia-prozesuaren baldintzei jarraituz, baldintzak betetzea baino ez da eskatzen.

Hortaz, ez dira adjudikazio-irizpideak eskatzen.

### **Prozedura.**

Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 86. eta hurrengo artikuluetan eta Zerbitzuetako jardueretara libreki sartzeari eta horietan aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen II. kapituluan ezarritakoaren arabera, eta, beti ere, lehia-prozesuaren baldintzei jarraituz, emango dira baimenak.

Eskariak aurkezteko epea amaitu eta gero, baimena lortzeko asmotan aurkeztu diren guztien zerrenda argitaratuko du udalak web gunean, euren eskubideen alde egoki irizten zaien guztia alegatu dezaten interesatuek edo dokumentazioa osatzeko, hamar (10) egunen barruan.

Dokumentazioa osatzeko epea amaitu eta gero, gehienez hilabete bateko epean, dagokion udal organoak, eskaria eta agiri egokiak direla Plegu honetan eta ordenantzan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, zuzenean emango die saltokiaren baimena eskatzaileei.



Dokumentazioa osatzeko epea amaitu eta gero, gehienez hilabete bateko epean, dagokion udal organoak, eskaria eta agiri egokiak direla Plegu honetan eta ordenantzan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, zuzenean emango die saltokiaren baimena eskatzaileei.

Eman daitezkeen salmentarako baimenak aurkeztutako eskariak baino gutxiago izango balira, baimenak **zozketa prozesuaren bidez** emango lirarteke. Horretako, baimenak saltokietan saltzen diren produktuen arabera (esate baterako, gozoki, lore, bitxi eta eskulanen saltokiak, etab.) talde ezberdinetan sailkatuta egongo dira, eta **zozketa bakarrik** egingo da baimen baino salmentarako eskari gehiago egongo lirartekeen taldeetan, aldiz, talde bateko salmentarako baimenen kopurua nahikoa izango balitz aurkeztutako eskabide guztientzat, aurreko lerro-aldiaren prozesua jarraituko da.

Edozein kasutan, saltokiaren kokapena, zozketaren bitartez esleituko da.

Talde bateko baimenak beteko ez balira eta beste taldeetako baimenak zozkatu ondoren oraindik eskaerak baleude, libre dauden postuak proportzionalki banandu lirarteke beste taldeen eskaeren artean.

Salmenta baimenak 10 urteko epea izango dute.

Salmentarako saltokiak 27 izango dira eta baimenen taldeak, honako hauek izango dira (2. eranskina):

- *Ehungintza / apaingarriak.* - 17 saltoki
- *Oinetakoak.* - 3 saltoki
- *Elikagaiak.* - 5 saltoki
- *Bestelakoak.* - 2 saltoki

Emandako saltokitik kanpora ez dira salgairik salduko, ez zirkulazio librerik oztopatuko ere saltokien arteko pasabideetan.

### **Salmenta postuen ezaugarriak**

23 saltoki 5 metrotako luzerakoak eta 3 saltoki 8 metrotakoak egongo dira, biak, 2,5 metrotako zabalera izango dute. Hau da 12,5 m<sup>2</sup> azalerako 23 saltoki eta 20 m<sup>2</sup> hiru saltoki (1. eranskina).

Salmenta postuak erraz garraiatu beharreko instalakuntza desmuntakorrak izango dira.

Salmenta postu guztien estalkiak, azokatxoari homogeneousun itxura emateko, honako ezaugarriak bete beharko dituzte.



Ehun iragazgaitzarekin egindako bi isurkiko toldo edo olana, suaren aurkako M2 tratamenduarekin, zuri koloreduna aurreko aldean amaiera uhinduna. (3. eranskina)

Era berean, saltokiaren barruan, salmenta mahai baten burutuko balitz, mahaiaren aurre aldea estalkiaren bezalako oihal batekin estali beharko da.

### **Zamalanak**

Zamalanek honako ordutegia izango dute;

- **7:30-9:00**
- **14:00-15:00**

Udalak ezarritako ordutegian eta eratan burutuko dira salgaien zamalanak.

Salgaien zamalanak horretarako ezarritako lekuetan bakarrik egingo dira.

Azotxokorainoko eta bertako barruko garraioa, behar diren garbitasun baldintzetan egingo da, ibilgailu eta garraiobide egokiak erabilirik.

Garraioaren edo zamalanen ondorioz, salgaietan eta enbalaketetan jasandako kalteen erantzukizuna garraiolariena izango da.

### **Ibilgailuak**

Alde zaharrera sartuko diren ibilgailuek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Gehieneko Masa Baimenduta 3,5 tona baino gehiago duten ibilgailuek ezin dute sartu.
- Luzerako 7 metro baino gehiago duten ibilgailuek ezin dute sartu.

### **Garbitasuna**

Jarduera amaitu ondoren salmenta postuaren tokia garbi geratu beharko da.

Sastarrak, ontziak, paperak eta merkatal jarduera honen ondorioz sortutako hondakin guztiak Udalak horretarako jarritako lekuetan batuko dira.

Ezin izango da aldatu kontenedore hauen kokagunea kalez kaleko salmenta jardueraren ondorioz.



## **Zaratak**

Ezin izango dira aparato akustikorik erabili.

## **Udal baimena.**

Ondorengoa edukiko du espresuki udal baimenak:

- Lizentziaren titularraren eta bere izenean aritzeko baimena duen edo duten pertsona edo pertsonen identifikazioa.
- Kokagune eta aldizkotasun finkoa duen azokaren saltokiaren zenbakia, edota jarduera hori zein edo zeintzuk lekutan garatu daitekeen.
- Baimendutako produktuak.
- Jarduera garatzeko eguna eta ordutegia.
- Okupatuko den azalera.
- Instalakuntzaren berezitasunak.

Baimendutako saltzaile guztiei nortasun txartel bat emango zaie, ondorengoa jarrita:

- Titularra eta baimendutako pertsonak baleude - identifikazioa.
- Saltzeko baimenaren balio epealdia.
- Baimendutako produktuak.
- Aldizkotasun eta kokagune finkodun azokaren kasuan, saltoki zenbakia eta jarduera garatzeko egunak, ordutegiak eta baimendutako lekuak.

Identifikazio hau beti izango du erakusgai, udal aginteak eskatuz gero.

## **Eskubideak eta betebeharrak.**

Kalez kaleko salmenta Bermeon arautzen duen Ordenantzaren 25. eta 26. artikuluetan agertzen direnak, hurrenez hurren.

## **Hizkuntza baldintzak**

Saltokietan testu idatziren bat ipintekotan, euskeraz ipiniko da; euskeraz eta gaztelaniaz ipintekotan euskereari lehentasuna emongo jako.

Ahal bada, saltzaileak elebiduna/k izatea gomendatzen da, eta erosleei harrerea edo agurra euskeraz egitea.

Udalaren Itzulpen Zerbitzuaren laguntza teknikoaz baliatu ahal izango dira saltzaileak testu idatziak euskeratzeko (oharrak, kartelak, prezio zerrendak, fakturearen testua...).



### **Baimena iraungitzea.**

Saltzeko baimena iraungiko da:

- a) Epealdia amaituz gero.
  - b) Titularrak utzi egin duelako.
  - c) Titularra hil edo enpresa desegin egin delako.
  - d) Baimena galtzea eragin duen zigorra eman delako.
  - e) Udalari jarritako legezko errekurtsio barruan ez dagoen prezio publikorik/tasarik ordaindu ez duelako.
  - f) Baimena lortzeko eskatu diren baldintza guztiak edo bataren bat galdu duelako.
  - g) Udalak ezagutu barik eta justifikatu barik, lau aste jarraian edota tartekako sei astetan azokara joan ez delako.
  - h) Interesatuak aurretiaz entzun ondoren, Kalez kaleko salmenta Bermeon arautzen duen ordenantzaren 21. artikuluan ezarritako iraungipenagatik.
  - i) Bermeoko udalerrian, orokorrean, kalez kaleko salmentaren kokapena edo aldizkotasun finkoa kendu egin delako.
- d), e), t), g), h) eta i) zioengatik iraungitzea, eskudun udal organoak hartutako erabaki bidez egingo da, interesdunari aurretiaz hamabost (15) eguneko epearen barruan aurretiazko audientzia emanaz.

### **Zigor prozedura.**


Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak araututakoaren bidez (Merkataritza Jardueraren Legearen bigarren aldaketa onartzen duen ekainaren 25eko 7/2008 Legeak emandako idazkeran oinarrituta) Eusko Jaurlaritzako organoen zigor eskuduntzaren kalte barik, Udalak zigortuko ditu Kalez kaleko salmenta Bermeon arautzen duen Ordenantzari (III. Kapitulua) egindako lege-urratzeak.

Bermeon, 2016ko abuztuan

ALKATEA




**Eranskina I. – Postuen kokapena eta zamaketa guneak**






**Eranskina II.- Salmentaren araberako saltokiak**



### Eranskina III. – Salmenta postuen estalkia



## Eranskina IV. – Eskabide orria



### AZOKATXOAN SALTOKIA JARTZEKO ESKARIA SOLICITUD DE PUESTO DE VENTA AMBULANTE EN EL MERCADILLO

(IN-G 205/01-16)

Izen-abizenak / Nombre y apellidos: .....

ENA/NAN / ENA/DNI: ..... Tel.: .....

Helbidea / Dirección: .....

P.K. / C.P.: ..... Herria / Municipio: .....

Faxa: ..... E-posta: .....

Ordez kariaren izen-abizenak: .....  
Nombre y apellidos del representante

Merkaturatu nahi diren salgaiak (bat aukeratu) / Mercancías que desea comercializar (indique una):

- Ehungintza - osagarriak / Textil – complementos
- Oinetakoak / Calzado
- Janariak / Alimentación
- Bestelakoak / Otros

.....  
.....

Saltokiaren neurriak (luzera) / Dimensiones del puesto de venta (longitud)

5 metro

8 metro

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZINO A (Esleipena egonez gero) / DOCUMENTACIÓN A  
PRESENTAR (en caso de adjudicación): IKUSI ATZEKALDEAN / VER ATRÁS

Datu honek Udaleko Informazio Sistematan sartuko dira. Udal kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta beste herri-administrazioei itxi edo jakinarazteko ahal izango jakoz abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoak) aurreikusitakoa gertatzen danean. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea eukiko dabe Bermeoko Udalean.

El uso de los datos facilitados por el interesado se llevará a cabo de acuerdo con lo establecido en la LOPD.



**AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZINOA (Esleipena egonez gero) /**

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR (en caso de adjudicación):

- ✓ ENA/EHNA/NANaren fotokopia / Fotocopia del ENA/EHNA/DNI
- ✓ Gizarte Segurantzaren altan emanda egotea eta bere kotizazioaren azken erreziboa / Alta y último recibo de ingreso de las cotizaciones de la Seguridad Social
- ✓ Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta egoeraren agiria / Certificado de alta o último recibo de ingreso del Impuesto sobre Actividades Económicas
- ✓ Elikagaiak saltzen direnean, elikagaien erabiltzaile txartela / En el caso de productos alimenticios, el carnet de manipulador/a de alimentos
- ✓ Jarduera horretan kontratatutako langileak balitu, lan harremana frogatzen duen eurei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da / Si tiene personas empleadas en esa actividad deberán aportar documentación de las mismas que demuestre la relación laboral
- ✓ Titularren izenean jarduera garatzeko baimenduta dauden pertsonen nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa / Documentación acreditativa de la identidad de las personas que pudieran estar autorizadas para ejercer la actividad en nombre del/de la titular
- ✓ Jarduera garatzen den instalakuntzak inori eragindako kalteetatik babesten dituen erantzukizun zibilaren polizaren kopia / Copia de la póliza de responsabilidad civil que cubra los daños a terceros producidos por las instalaciones donde se desarrolle la actividad

Eskatzaileak Udalarekin inolako zorrik edukiz gero, dokumentazio hau aurkezteko epea amaitu baino lehenago kitatu beharko luke. Hau egin ezean ez da bere eskaria onartuko / Si el solicitante tuviera algún tipo de deuda pendiente con este ayuntamiento deberá ser liquidada antes del final del plazo de entrega de esta documentación. De no hacerlo no se aceptará su solicitud.

Aipatutako datuak egia direla eta eskatutako dokumentazio guztia daukadala aitortzen dut eta,

- Ezarritako baldintzak betetzen ditudala.
- Jardueraren hasieratik bertatik hori egiaztatzen duen agiriak ditudala.
- Baimena indarrean dagoen bitartean beteko ditudala.
- Administrazioarekin kontratatzeko baimena/ahalmena daukala

Declaro que los datos consignados son ciertos y

- que cumplo las condiciones indicadas en los pliegos que rigen la adjudicación
- que en el caso de adjudicársele una licencia estará en posesión de la documentación requerida,
- que durante el periodo en el que la autorización esté en vigor cumplirá las condiciones requeridas
- que posee capacidad para contratar con la administración

Eta dagozkion ondorioetarako horrela jasota gelditu dadin honako aitorten hau sinatzen da /

Y para que así conste a los efectos de mi participación en este proceso selectivo, firmo la presente declaración.

Bermeon, (En Bermeo, a) .....

Izp. / Firma

**BERMEOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA**  
ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE BERMEO

Datu honeek Udaleko Informazio Sisteman sartuko dira. Udal kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta beste herri-administrazioei itxi edo jakinarazo ahal izango jakez abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoa) aurreikusitakoa gertatzen danean. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea eukiko dabe Bermeoko Udalean.

El uso de los datos facilitados por el interesado se llevará a cabo de acuerdo con lo establecido en la LOPD.

